

# EUSKAL CURRICULUM HEZKIDETZAILE BATEN ALDEKO AGIRIA

Euskal Curriculumaren egitasmoa apurka apurka gorpuzten ari den honetan, Euskal Herriak Bere Eskola osatzen dugun kideok, Euskal Herriko emakume ezberdinekin batera, esku artean duzuen agiria kaleratzea beharrezkoa ikusi dugu.

## Agiri honen helburua

---

Eskuartearen duzuen agiri honen helburua Euskal Curriculumaren egitasmoak hezkidetzaren alorrean duen gabezia aztertzea, gure kezka plazaratzea eta ekarpen eraikitzailea egitea da. Euskal Curriculumaren sortze prozesuan zehar ekarpen ezberdinak egin ditugu herri ekimen zein norbanako gisa, baina une hauetan ezin dugu itsu zein eskuak gurutzaturik gelditu egitasmoak genero ikuspegitik dituen gabeziak ikusita. Guretzat erabat larria den gabezia izaki, modu eraikitzaile batean erantzun nahi diogu.

Bide honetan, gure helburua agiri hau ahalik eta gehien zabaltzea izango litzateke, une hauetan eskolaz eskola burutzen ari diren eztabaidatan eragiteko asmoz. Guztion ardura da parekidetasunaren bidean urratsak ematea ahalbideratuko duen Euskal Curriculum hezkidetzaille bat eraikitzea.

## Euskal hezkuntzaren xedea

---

*Herritarrei errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izadikide gisa osoki edo integralki garatu daitezzen.*

Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herriak Bere Eskolak hezkuntzari aitortzen dion xedea eta bide horretan, uste dugu Euskal Curriculumak integrala izan behar duela bere osotasunean, alor ezberdinei dagokionean eta bere zentzu zabalenean.

Hezkuntzak herritarrei baliabideak eman behar dizkiela aintzat hartuta, ez gara soilik egungo errealitatean ahalik eta hobekien moldatzeko beharrezkoak izango dituen baliabideak emateaz ari. Aitzitik, hezkuntzaren xedeak haratago joan behar du, pertsonari “ez dagoen errealitatea” edo utopia sortzeko beharrezkoak dituen baliabideak emanaz. Hezkuntza eta curriculum askatzaile batek, ezinbestean, gizartea aldatzeko proposamena dauka bere baitan, hezkuntzaren bidez gizarte bidezkoagoa eraiki daitekeenaren uste positiboa. Gure herriaren kasuan, biharko Euskal Herria eraikitzeaz ari gara: herritar eleanitzez osatutako lurraldea, identitate anitzak dituzten herritarrez osatutako herria, pertsona oroaren eskubideak eta aukera berdintasuna bermatuko duen bidezko jendartea.

Jendarte justuago bat lortu nahi badugu, curriculum batek egungo errealitateari ikuspegi kritiko batetik so egin behar dio eta urteetan zehar ezkutatu zein isilarazi nahi izan den historia azaleratu behar du.

## “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum”ri atzemandako gabeziak

---

Agiri hau sortu aurretik egun eztabaidagai dagoen “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” izan dugu aztergai. Berau patxadaz irakurri, aztertu eta zenbait punturen gainean hausnarketa sakon bat egin ostean, aipatu dokumentuak hezkidetzaren alorrean honako hutsune hauek dituela aurre ikusi ditugu:

1) Hezkuntzaren xedea aipatzen denean ez da aukera berdintasunean oinarrituriko jendarte parekidea lortzea helburutzat jartzen. Hori egun bizi den sexu-genero gatazka sistematiko eta zapaltzailea kontutan harturik, gatazka bere elikatzen du eta curriculum atzerakoi bezain sexista ekoiztea ahalbideratzen du.

2) Egitasmoaren ezaugarritzean ez da curriculum hezkidetzaille baten baldintzaren premiazotasuna aurre ikusten dokumentuan. Guk uste dugu curriculumaren diseinuaren atalean, ezaugarriak zein oinarriak aipatzen diren momentu beretik, beste atal guztien erredakziora, gai hau oso presente izan beharra dagoela.

3) Curriculum liburu soil bat ez dela kontutan harturik, berau praktikan jartzeko zein garatzeko baliabideei dagokionean, ez da inongo erreferentziarik egiten hauek aukeratzeko orduan erabili beharreko irizpide edo baldintzei.

4) Proposamen osoan zehar ez da apenas hezkidetzeta aipatzen eta ez dira arlo honetan egin diren aurrerapenak jasotzen. Parekidea den Euskal Herri bat sortu nahi badugu, tresna garrantzitsua izango da Hezkidetzeta. Hezkidetzeta, hezkuntza sistema parekidetasuna lortzeko metodologia didaktiko bezala definituta, beti ere.

---

### **Beraz, guzti hau kontutan izanik, honakoa aldarrikatzen dugu**

---

Arestian aipaturiko hutsuneak presente izanik, honako aldaketa proposamen edo ekarpen eraikitzaileak egiten ditugu sortzen ari den Euskal Curriculumak hezkidetzaren alorrean bete beharreko funtzioa bermatze bidean:

- **Hezkuntzaren xedeari dagokionean:**

Hezkuntzak bere baitan bete beharreko helburuei dagokionean, funtsezkoa ikusten dugu honako ideia hau testuan jasotzea:

Euskal Herriak Bere Eskolaren ustez, hezkuntza kultur transmisiorako tresna izateaz gain, pertsona kritikagoak izaten, geure buruaren jabe izaten lagundu behar gaitu. Hezkuntzak askatzailea izan behar du eta ez menperatzailea. Hezkuntza sozialki eraikitako errealitatea izaki, curriculumaren bidez errealitate horietaz jabetzea lortu behar da, modu horretan gizartea eraldatzeko gaitasuna izango baitugu. Gizaki aske eta autonomoak hezi behar ditugu, ideia faltsu zein komunikazio modu distorsionatuetatik emantzipatutako pertsonak.

Beste mundu bat posible delako lelotik beste mundu eredu batera igaro behar dugu, eta Euskal Curriculumak ere beste mundu hori sortzeko ekarpena izan behar du. Mundu berri horren eraikuntzan emakumeak historian zehar eginiko ekarpena plazaratu behar da, emakumearen parte hartzea bermatuko dituen mekanismoak martxan jarri behar dira eta sexismoaren adierazle guztiak ezabatu behar dira. Euskal Curriculumak, beraz, zampaketa ororen gainetik, jendarte parekide baterako pausua ematen lagundu behar du.

- **Euskal Curriculumaren ezaugarritzeari dagokionean:**

Puntu honetan honako testu hau gehitzea proposatzen dugu (0.3 puntuaren barneko 1.00 puntuaren baitan kokatzen den “1.1.Oinarriak eta ezaugarriak”-en)

*Izgera hezkidetzaillea: Hezkuntza Sistema, sozializaziorako oinarritzko bitartekoa da, eta jendarte eredu birsortzeko baina, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzailea. Honenbestez, pertsona aske eta integralak hezi eta sexuen arteko parekidetasunaren alde egin behar du: batetik, ezberdintasun sozialak gaindituz; eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatuz. Hezkuntza sistemak, finean, parekidetasunean oinarritutako Euskal Herria sortzen lagundu behar du.*

- **Baliabide pedagogikoak hautatzeko irizpideak:**

Curriculum bat erreferentzia pedagogiko bat den heinean, beraz praktikara eramateko baliabide zein bitarteko ezberdinak sortzea eta martxan jartzea eskatzen du. Bitarteko nahiz baliabide hauen hautaketa egitea, ordea, ez da gauza erraza. Irizpide ugari hartu behar dira kontutan (pedagogia partehartzailea, aurrerakoa, teoria eta praktika uztartzea ahalbideratuko duena...), baina gaurkoan hezkidetzaren irizpidea aintzat hartzea eskatzen dugu eta, beraz, testuan honako ideiarene baitako irizpidean txertatzea proposatzen dugu:

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den “pertsonek hezkuntza” litzateke hezkidetzaren, hots, irizpide sexistak jarraituz, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaerak, e.a. kontutan hartu gabe hezteko da. Pertsona autonomoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbideetarako helburuekin. Finean, gizon eta emakumeen arteko berdintasun eta ezberdintasunetatik eta bi ereduen (maskulino eta femeninoa) integrazioetik abiatu behar deneko prozesua izatea suposatzen du.

Baturik eta banaturik, neskato eta mutikoei egindako giza sozializazio prozesua, non helburutzat, jaiotzeko jatorria eta sexua izandakoak izanik ere, garapen pertsonala bultzatzen duen iharduera sistematikoa ezartzen den, eraikuntza sozial amankomuna lortzeko.

- **Politika hezkidetzaille integral baten aldeko egitasmoa izan behar du.**

Hezkuntza Sistema, sozializaziorako oinarritzeko bitartekoa da, eta jendarte eredu birsortzeko baino, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile bilakatu beharra, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde eginez. Batetik, ezberdintasun sozialak gainditzeko balio izango du, eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko. Parekidetasunaren oinarritutako Euskal Herri sortzeko.

Euskal Herriak Bere Eskolak Euskal Curriculum Hezkuntza Sistema Propio baten bidean kokatzen duen heinean, guztion artean eraikitzen ari garen egitasmoak politika hezkidetzaille integral baten alde egin behar du. Integrala, hezkuntza komunitate osoaren konpromezu zein inplikazioa beharrezkoak direlako, baina baita Euskal Curriculum dinamikoa izan behar duen heinean, bere osotasunean biltzen dituen baliabide zein bitarteko ezberdinekiko hainbat neurri hartu beharko dituelako. Besteak beste, honako hauek proposatzen ditugu: hezkidetzaren aldeko egitasmoak gauzatzea ( besteak beste, hezitzaileen prestakuntza, testu-liburugintza, ikerketa, orientazio eta ebaluazio prozedurak...), hezitzaileen formazio etengabea bermatzea (kurtsoak, materiala erraztu...), egokiak diren baliabideen erabilpena bultzatzea (bideoak, ipuinak, albisteak...) ...

Azken batean Euskal Herriak nahi eta behar duen Euskal Curriculum hezkidetzaille eraiki behar dugu.

**euskal herriak bere eskola**  
2006ko martxoaren 9a. Bilbo